

eusGara

Arratiako enpresetan zerbitzua eta beharra euskaraz

2018ko abendua

ZER DA eusGara

eusGara proiektua Arratiako enpresei zerbitzua eta lana hobetzen laguntzeko egitasmoa da, ERROTA Fundazioak bideratzen duena.

Hizkuntza kudeaketa hobetu eta euskararen erabilera handitzeko zerbitzuak eta laguntzak eskaintzen dira enpresa bakoitzaren helburu, ezaugarri eta erritmoetara egokitutakoak, enpresak berak aukeratutako arloetan.

Horretarako, zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza hobetzeko aukerak zeintzuk izan daitezkeen aztertzen da:

- Enpresaren irudia, errotuluak, publizitatea eta ingurune digitala.
- Bezeroa eta herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanak.
- Laneko dokumentuak, aplikazio informatikoak eta bestelako tresnak.
- Barne komunikazioa, batzarrak eta langileen arteko idatzizko eta ahozko harremanak.
- Pertsonen kudeaketan erabiltzen den dokumentazioa.
- Administrazioarekiko harremanak.
- Hizkuntzak txertatu langileen eta sistema orokorraren kudeaketan.

Horiek aurrera eramateko honela egiten ari gara:

- 1- eusGara egitasmoko teknikariek harremanetan jarri.
- 2- Enpresaren egoera aztertu eta beharrak identifikatu.
- 3- Enpresaren lehentasunak eta eusGara egitasmoak emango dion laguntza zehaztu. Hitzarmena sinatu.
- 4- Lankidetzak gauzatu.
- 5- Lankidetzak ebaluatu. Lantalde zabal eta publikoan parte hartzeko aukera.

JARRAIPIEN BATZARRAK

Hilero-hilero proiektuaren nondik norakoak zehazteko eta egindako bidea ikusteko jarraipen bilerak egin dira. Bileretan proiektuaren inguruko informazioa, berriak eta aurrerapausoak azaldu dira besteak beste; baita eman beharreko pausoak adostu ere. Hala, oso garrantzitsua izan da arduren banaketa egitea zereginak ahalik eta ondoen bideratzeko. Horretarako, arduraren banaketa garrantziaren eta hurbiltasunaren arabera antolatu da: alde batetik, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta udalekin Errotako arduraduna jarri da harremanetan; eta bestetik, proiektuaren kudeaketaz, euskarriak sortzeaz, diagnostiko eta lan ildoan proposamena egiteaz, enpresa eta bestelakoekin harremanetan jartzeaz Ahize-AEKren teknikarien ardura izan da.

Orotara 10 jarraipen bilera egin dira Areatzan, Errotaren egoitzan, eta bertara Ahize-AEK-ko kideak zein Errotako koordinatzailea bertaratu dira.¹

BITARTEKOEN SORRERA

Egitasmoa berritzailea izatean materiala sortzea ezinbestekoa izan da aurrera eraman ahal izateko. Horrela, hainbat material berri sortu behar izan dira beharrezanean erantzuteko.

Proiektuaren izena adostea izan da lehena eta horren irudia bigarrena. Enpresa zein udalekin harremanetan jartzeko e-posta helbide bat sortu dugu. Horiekin guztiekin, bisita txartelak egiteari ekin diogu, bisitetan, besteak beste, banatzeko.

Proiektua aurkezteko bisitetarako eta informazioa zabaltzeko zein azaltzeko eskuorriak² sortu dira euskaraz zein gaztelaniaz. Ondoren,

¹ Ikus jarraipen aktak I-X

² Ikus eskuorriak

bailarako enpresen zerrenda egin da; izan ere, udalekin informazioa elkarbanatzeko eta enpresa batzuei lehenetsuna emateko behar-beharrezkoa izan da. Azkenik, hitzarmen orokorrak eta espezifikoak (ekintza plana - aurrerapausoak) diseinatu dira.

Lehenengoa, enpresa guztiekin hitzarmen orokorra³ sinatzeko konpromisoa izan da; eta bestea, enpresa bakoitzari zuzendutako hitzarmen espezifikoak⁴ (Ekintza plana, aurrerapausoak), bakoitzaren diagnostikoan oinarritutakoa eta beraien beharrezanean erantzuten diona. Hitzarmenak egiteko orduan oinarri gisa EME ardatza hartu da.

Bestalde, emandako pausoen berri eta egindako ekitaldiei buruzko prentsa ohar desberdinak idatzi dira eskualdeko aldizkarirako, proiektuaren berri eskualdean zabaltzeko helburuarekin.

Enpresei beraien jarduna errazago egiteko bitartekoak eskura jarri gura izan dizkiegu. Horretarako sarean dauden lotura interesgarrien bilduma bat egin dugu Errotako web-orrialdean eskuragarri jartzeko eta e-postaz gurekin elkarlanean ari diren enpresei bidaltzeko.

Azkenik, lanean ari garen enpresekin testigantzen bideo bat egiteko grabaketak egin ditugu 2019ko otsailaren 1ean egingo dugun jardunaldian aurkezteko eta Errotako web gunean esekitzeko zein sare sozialetan zabalpena egiteko. Egitasmoa zabaltzeko eta ezagutarazteko beste bitarteko bat izango da, beraz.

AURKEZPEN BILERAK

Egitasmoa zabaltzeko eta azaltzeko bilerak antolatu dira eskualdeko enpresekin, sindikatuarekin eta udalekin. Horretarako, lehendabizi mezuz harremanetan jarri gara proiektua helarazteko eta hitzordua zehazteko. Hala, enpresako eta sindikatuarekin ordezkariarekin batzeko eta udalei informazioa bidaltzeko aukera izan dugu. Ondorioz,

³ Ikus hitzarmen orokorra

⁴ Ikus ekintza plana, aurrerapausoak

hamaika enpresarekin hitz egin da eta horietako batzuekin hitzordua jartzea lortu da.

Hitz egindakoak:

ELA	Graficas Arratia BI
LAB	Comecaran
Industrias Bai	Ormazabal
Baserrigintza	Tecnichapa
Alkizabal	OPA
Electro Ilunbe	Alinar Die Casting
Lekun Kautxo	Tresnak
Residencia Jandoniz	Zulaibar Arratiako Lanbide
Ormaurre	Ikastegia

Beste enpresa batzuekin, ez dugu egitasmoa bertatik bertara azaltzeko hitzordua jartzerik lortu eta, beraiek hala eskatuta, emailaz bidali diegu informazioa:

Alkizabal	Hierros Sancho
Gea Iberica	Wolco
Walter Pack	

Telefonoz eta postaz harremanetan beste enpresa batzuekin ere jarri gara, baina ez dugu, oraingoz, aurrera egiterik lortu:

Alfe Cutting	Cementos Lemona
Industrias Galarza	Ilunion
Soka lanak SL	Alojamientos y Hoteles H71 SL

Bestalde, Euskaraldia ekimena ere sustatu dugu Arratiako enpresa guztietan, e-posta bidez. Egitasmoaren nondik norakoak azaldu zaizkie eta bertan parte hartzeko gonbitea egin. Era berean, eskualdeko udaletan laguntza eskatzeko aukera ere badutela azpimarratu diegu.

Bide batez, Euskaraldiaren informazioarekin batera eusGara proiektuari buruzko eskuorriak ere bidali diegu guztiei.

Azkenik, enpresak euskaragiletu ekimenean parte hartzera gonbidatu genituen helbide elektronikora mezu bat bidaliz; izan ere, enpresetan euskararen erabileran eragiteko praktika onak eta esperientziak ezagutzeko aukera ikusteko.

DIAGNOSTIKOAK EGITEKO BISITAK

Enpresekin batu eta proiektua azaldu eta gero, diagnostikoa⁵ egin da egoera zein den jakiteko. Enpresa batzuekin aurrez aurre batu eta beraiekin batera bete dira diagnostikoak; beste batzuekin, berriz, hitzordua jartzeko zailtasunak izan direnez gero, diagnostiko fitxa on-line bete dute.

Diagnostikoa bete duten enpresak:

Industrias Bai

Comecaran

Tresnak

Ilunbe

Lekun kautxo

Zulaibar Arratiako Lanbide

Ikastegia

Ormaurre

Garaficas Arratia BI

Alinar Die Casting

Baserrigintza

Residencia Jandoniz

JARDUNALDI NAGUSIA

Proiektuan parte hartu duten guztiekin (Bizkaiko Foru Aldundia, Eusako Jaurilaritza, Errota, udalak eta enpresak) ekitaldi txiki bat egin dugu ekainean. Alde batetik, hitzarmen orokorrak sinatzeko eta, beste alde batetik, elkar ezagutzeko eta gure arteko harremanak sendotzeko.

Hemen egitaraua:

⁵ Ikus hizkuntza egoeraren diagnostikoa

Ekainaren 22an, 12:00etan, Errotako egoitzan:

- Ongi etorria-> Errota 12:05
- Bizkaiko Foru Aldundia 12:10 (Lorea)
- Sinatzea 12:15-12:45 (3-4 minutu enpresako. Sinatzea hurrenkera alfabetikoan egingo da)
- HPS/Eusko Jaurlaritzak itxi (Josune) 12:55-13:00 eta ondoren talde argazkia
- Pintxoak (Txaparro jatetxea-> Ura, txakolina eta ardoa) 13:00-13:30
- Begitu aldizkaria gonbidatu argazkiak egiteko eta artikulua idazteko (Bea)